

2.5.5. Arauak: morfosintaxia (IS)

Ariketak

I. Bete itzazu hutsuneak kasuan kasuko deklinabide marka erabiliz:

1. Behin bat..... (NON) Mirenekin hondartzan ikusi zintudan
2. Nortzu..... (NORENTZAT) ez da batere erraza paperean ikusitakoa gogoan hartzea?
3. Zein puntu..... (NON) elkartuko dira zuzenkiak?
4. Pertsona batzu..... (NOREN) ustez, leporainoko elurra bezalakorik ez da neguaz gozatzeko. Beste batzu..... (NORI), lainoak ikuste hutsak hotzikara eragiten die.
5. Tolosatik Irunerako bidean hainbat geltoki..... (NON) gelditzen da tren hau.
6. Zenbait idazle..... (NOREN) liburuek ez zuten harrera ona izan Durangon
7. Sekulako lanpostua eskaini didate atzerriko enpresa bat.....(NON); hala ere, ez dut batere gustuko bat.....(NONDIK) bestera erabiltzea.
8. Zein musika-denda..... (NORK) saltzen dituzte kontzerturako sarrerak?
9. Honenbeste ariketa..... (ZEREKIN) burutik eginda amaituko dugu
10. Jakin nahi nuke zeintzu.....(NORK) zabaldu duten zurrumurru hori
11. Zein herri..... (NONDIK) pasako da Abiadura Handiko Trena?
12. Makina bat tontor..... (NONGO) haizeak hartuak gara
13. Ezin ezagut dezakegu ezer une jakin bat..... (NOIZKO) gerra bat
(ZEREZ/ZERTAZ)
14. Arazoa konpontzeko ez duzu nahi adina konponbide (NOR) izango, bakarra baizik
15. Zein lagun..... (NORI) igorri dizkiezu interneteko irudiak?
16. Curriculuma hainbeste enpresa..... (NORA) bidali dudan arren, zail ikusten dut uda honetan lana aurkitzea.
17. Herri batzu..... (NONDIK) beste batzu..... (NORA) alde handia dago:
batzu..... (NOR) itsusiak dira, besteak oso zaharrak
18. Bizitza helburu bat..... (NORANTZ) zuzentzen den jarduera da

II. Ondorengoetan, hautatu aukera zuzena:

1. Ez da ikaslea agertu / Ez da ikaslerik agertu
2. Ez dit oraindik ikasleak / ikaslerik lana eman
3. Honezkero bulegoan jasoko zuten gure gutuna / Honezkero bulegoan jasoko zuten gure gutunik
4. Zer dakizue lagunetaz? / Zer dakizue lagunez?
5. Eta beste horiez? / Eta beste horietaz?
6. {Hamarri baino gehiagori / Hamar baino gehiagori / Hamarri baino gehiago} bidali diet Udalaren aurreproiektua.
7. Zergaitik negar egin? Zeruan izarra dago... / Zergatik negar egin? Zeruan izarra dago...
8. Semean jarri ditut esperantza guztiak / Semearengan jarri ditut esperantza guztiak
9. Bost urtez ibili naiz zure atzean / Azken bost urteez ibili naiz zure atzean
10. Seietako autobusean etorriko dira / Seietako autobusaz etorriko dira

III. Ondorengo 10 esaldietan, 7 dira okerrak. Okerrak zuzendu:

1. Termoplastikoak beira-trantsiziokoan baino tenperatura altuagoan osatzen dira.
2. Plastikoz batzuk ezaugarri bereziak dauzkate.
3. Biharko ariketa guztiak eginak dira
4. Zenbait kulturetan hasiera batean nekeza egingo da ideia horiekin lan egiten hastea.
5. p-n lotura artezgailuek korronea norabide batetan baino ez dute errotan.
6. Polimero plastikoa nola landu hainbat faktoreen menpe dago
7. Automobil baten motorra, zilindro baten barneko erregaia erretzean sorturiko gasen indarrez baliatzen da
8. Lagun batzuk ekarri naute
9. Joango nintzateke, baina hainbeste gauzak ditut egiteko
10. Badirudi gaur egungo gizartean bizi diren umeek egunak nahiko betetak dituztela